

Kaixo Lankide:

Somatzen genuen moduan, 2011rako murrizketak heldu zaizkigu, eta soldataren jaitsiera nabarmena izango da.

**2011an, hilero 52,27€ kenduko digute!!!** baina ez digute hilero kenduko pagetan baizik, hau da, 367.99€ kenduko digute uztaileko pagan eta beste hainbeste 2011ko abendukoan. Hirurtekoetan ere "beherapenak" jasango ditugu, 1,10E gutxiago hirurteko bakoitzeko eta hilero.

Hau guztia dagokigun **2010eko soldatan %0,8ko igoera aplikatu gabe**, Partzuergoak ez omen dauka igoera aplikatzeko borondaterik.

**Zertan ari da Patzuergoa? Gure lan baldintzak kaxkartu eta orain horrelako murrizketa? Negoziatzeko borondatea? Orain arte zuriketan ibili dira guri gauza bat esanez eta beste bat eginez.**

Gauzak horrela, nola espero du enpresa honek haiek hain ondo planifikatuta dituzten murrizketa jokaera honetan sartuko garela? Benetan hobekuntzak negoziatu nahi dute edo xantaiak egiten jarraitu nahi dute??

Jada ezin gara isilik gelditu.

**PATZUERGOARI ERANTZUN BEHAR DIOGU,  
ADIERAZI HASERRE GAUDELA,  
HAU JASAN EZINA DELA!!!**

STEE-EILASetik uste dugu, beste sindikatuen ekintzak kritikatu beharrean, orain **batasuna** behar dugula eta erantzukizuna eskatzen dugu beharrezkoak diren ekintzak eta mobilizazioak adosteko.

## STEE-EILAS

ARABA	BIZKAIA	GIPIZKOA	NAFARROA
Eulogio Serdán, 5 (behea) Tf: 945 14 11 04 Faxa: 945 14 43 02 araba@stee-eilas.org	Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) Tf: 944 10 02 98 Faxa: 7944 10 13 60 bizkaia@stee-eilas.org	Baso-bdki, 30-34 (atzealdea) Tf: 943 46 60 00 Faxa: 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org	Descalzos, 72 (behea) Tf: 948 21 23 55 Fax: 948 22 97 90 nafarroa@stee-eilas.org
EHU-UPV Araba 945013397 stee-eilas.ara@ehu.es	EHU-UPV Bizkaia 946012435 stee-eilas.biz@ehu.es	EHU-UPV Gipuzkoa 943018436 stee-eilas.gip@ehu.es	